

DIRU-SARRERAK



Kontuan izan behar dugu enpresek diru-sarrerak sortzeko modu ugari dituztela, hala nola, aktiboen salmenta, erabileragatiko saria, harpidetzagatiko saria, mailegua, renting-a eta alokairua, lizentzia, Broker edo komisio bidezko saria eta publizitatea. Gainera, diru-sarrera hauek bi motatakoak izan daitezke, hots, ordainketa bakarrekoak edo errepikarikoak.

Gure kasuan, aktiboen salmenta izango da gure diru-sarrera nagusia, eskainiko ditugun produktu kosmetikoa jasangarri eta beganoak izango dira aktiboak hain zuzen ere. Gainera, hauek ordainketa bakarreko diru-sarrerak dira, bezeroek produktua erosten dutenean bakarrik ordaindu beharko digutelako alegia.



Gure enpresa martxan jartzeko diru kantitate handia behar dugunez, hasiera batean bankuari mailegu bat eskatuko genioke, alegia, epe luzera ordaintzekoa.